

¡PAZIENTZIYA!



(NERE ADISKIDE APAIZ ON LEANDRO SOTO JAUNARI DONKITUA)

Pioi gisarajo bat
ari zan lanian
lantegi char batean
egiñal danian;
esanaz:—Deskantsuak
gaitu gu piskortzen
ta otorduak penak
dizkigu aztutzen;
bada nola eguardiya
dan laister izer poza,
entzuten detanian
alabaren boza;
diyola: «Aita ara
emen bazkariya
epel epela eta
gañera erariya.»—
Bañan alabarikan
ez baitzan ageri,
ta otordu denbora
joaten aizan ari;
pazientziyan zeguen
ta zuben esaten,
—igaur gure neška zeñen
berandu datorren!

¿zér ote da gertatzen?
 ez nago ni lasa,
 ¿bidean ote zayo
 zerbait gauza pasa?—
 Ontan alaba zayo
 aurrera azaltzen,
 mantalen ertzarekin
 malkoak legortzen;
 eta diyo negarrez
 ark aita onari
 —Bazkariya sestotik
 zait orche erori
 eta autsiyak ditut
 botill ta basua,
 ta bazkariya dakart
 zikiña jasua.—
 Erriyeta alabari
 eman bearrian
 artzen du aur gašua
 bere magalian,
 eta diyo:—Au ez ta
 ezer, išill zaitte,
 badakizu aitachok
 zaitubela maite;
 charrago izango zan
 gaur zuk miñ artzia,
 obe da ni jan gabe
 orain gelditzia;
 zuaz, zuaz echera
 aldan laisterrena
 au izan dediyela
 gaizik okerrena.—
 Itz abek esanik juan
 zan neška echera,
 ta bera deus jan gabe
 ostera lanera.

JOSÉ ARTOLA.